

**OTXANDIO TOKIKO AGENDA 21  
IRAUNKORTASUNERAKO UDAL  
PROZESUA**

**II. DOKUMENTUA: IRAUNKORTASUNERAKO EKINTZA  
PLANA**

**2007 Martxo**

# **OTXANDIOKO TOKIKO AGENDA 21aren EKINTZA PLANAREN OSAKETAN LAGUNDU DUTEN ERAKUNDE ETA PERTSONAK**

## **Otxandioko Udala**

Aritz Ochandiano Campo. Alkatea  
José Axpe Acera. Alkateordea  
Alberto Llona Uribe. Alkateordea  
Igor Barredo Axpe. Zinegotzia  
Urtzi Armendáriz Alzaga. Zinegotzia  
Ana M<sup>a</sup> Goicolea Basaguren. Zinegotzia  
Ramón Intxausti Iturregi. Zinegotzia  
Jesús Mariano Galarza Zabala. Zinegotzia  
José Ignacio López de Letona Karetxe. Zinegotzia

Enrike Alaña. Idazkaria

## **Beste Administrazio eta Erakundeak**

Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoa  
Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa IHOBE A.B.  
Bizkaiko Foru Aldundiko Nekazaritza eta Mendien Saila  
Mendien eta Ingurumen Naturalaren Zuzendaritza  
Bizkaiko Foru Aldundiko Herrilan eta Garraio saila  
Errepideen Zuzendaritza Orokorra  
Bizkaiko Foru Aldundiko Ingurumen Saila  
Eusko Jaurlaritzako Lurraldearen Antolaketarako eta Ingurumen Saila  
Ingurumen Kalitatearen Zuzendaritza  
Biodibertsitate Zuzendaritza  
Ingurumenaren Planifikazio, Parte-hartze eta Kontrol Zuzendaritza  
Uraren Zuzendaritza  
Eusko Jaurlaritza. Industria, Merkataritza eta Turismo Saila  
Energiaren Euskal Erakundea  
Iberdrola SA  
Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa  
Fundación Gezia  
Bilbao Metrópoli 30

## **Laguntza Teknikoa: Ingurune S.L.-Prospektiker, SA**

Julen Rekondo. Teknikaria  
Carlos Alonso. Teknikaria  
Arkaitz San José. Teknikaria  
Ibon Zugasti. Teknikaria  
Olatz Errazkin. Teknikaria  
Mikel Irasuegi. Teknikaria

## 0. AURKIBIDEA

<b>1. AURKEZPENA .....</b>	<b>4</b>
<b>2. IRAUNKORTASUNERAKO EKINTZA-PLANA .....</b>	<b>5</b>
2.1. HELBURUAK.....	5
2.2. EGITURA ETA EDUKIAK.....	6
2.2.1. EKINTZA PLANAREN EGITURA.....	6
2.2.2. EKINTZA PLANAREN EGITURA OINARRIZKO EGITURA.....	7
2.2.3. KARAKTERIZAZIO EKONOMIKOA ETA EKINTZAK BURUTZEKO ERANTZUKIZUNA.....	11
2.3. LERRO ESTRATEGIKO, PROGRAMA ETA EKINTZAN LABURPENA .....	12
2.4. EKINTZEN DESKRIBAPEN FITXAK.....	21
<b>3. JARRAIPEN PLANA .....</b>	<b>194</b>
3.1. AURKEZPENA.....	194
3.2. IRAUNKORTASUNERAKO ADIERAZLEEN SISTEMA .....	194
3.2.1. EZAUGARRIAK.....	194
3.2.2. HAUTATZEKO IRIZPIDEAK.....	194
3.2.3. METODOLOGIA-ERREFERENTZIAK.....	195
3.2.4. PROPOSATUTAKO ADIERAZLEEN SISTEMA.....	195
3.2.5. ADIERAZLEEN DESKRIBAPEN FITXAK.....	197

## 1. AURKEZPENA

Udalerriko *Ingurumen Diagnostikoa* behin eginda, Otxandioko udalerrriak aurre egin beharreko problematika eta mehatxu nagusiak zehazten dira eta baita, Tokiko Iraunkortasunerako Ekintza Plana edo Tokiko Agenda 21 osatzea bere baitan hartzen duten iraunkortasunerako irizpideak zehaztuta sortzen diren aukerak ere.

Udalerriaren Diagnostikoa abiapuntu hartuta, hemen aurkezten den dokumentuak analisi horri erantzuteko garatu beharreko helburu eta ekintza multzoa biltzen ditu. Udalerriaren garapen iraunkorragorako bidean aurreratzea da funtsezko helburua.

Proposatzen den ekintza eta jardueren helburuen multzoa Otxandion Iraunkortasunerako Ekintza-Plana deritzonean bildu eta egituratzen dira, Udalerriaren Agenda 21 prozesuaren oinarritzko elementua.

Dokumentu honen helburua Ingurumenaren Diagnostikoaren eta jarduera helburuen arteko lotura egitea da, azken hauek lehenestea, Iraunkortasunerako Ekintza-Planeko edukien deskribapen zehatza egitea, eta ezartzeko prozesuaren jarraipena gauzatzeko Iraunkortasunerako Adierazleen Sistema aurkeztea eta deskribatzea.

Zentzu honetan, agiri honetan kontuan izandako kapituluak ondoko hauek dira:

### **DIAGNOSTIKOTIK EKINTZA-PLANERA (2. atala)**

Ondoko hauek barne hartzen ditu: Egungo egoeraren Diagnostikoa, udalerriak kontuan hartutako gaikako eremu bakoitzean dituen joerak eta, hortik aurrera, Ekintza Planean geroago islatuta agertzen diren jarduteko helburu erlazionatuen ezarpena.

### **IRAUNKORTASUNERAKO EKINTZA- PLANAREN AURRERAKINA (3. atala)**

Otxandioko Iraunkortasunerako Ekintza-planaren edukien deskribapena eta karakterizazioa barne ditu, Ildo Estrategikoen, Ekintza-programen eta Ekintzen azalpenaz zein deskribapenez, eta Planaren karakterizazio zehatzez.

### **EKINTZA- PLANAREN JARRAIPENAREN AURRERAKINA (4. atala)**

Eskema moduan, Otxandioko udalerriko Tokiko Agenda 21 prozesuaren segimendurako diseinatutako Iraunkortasunerako Adierazleen Sistemaren deskribapena eta karakterizazioa aurkezten da, udalerriko egoera eta Iraunkortasunerako Ekintza-planaren ezarpenerako garapen-maila urtean behin ebaluatzeko moduan.

## **2. IRAUNKORTASUNERAKO EKINTZA-PLANA**

### **2.1. Helburuak**

Iraunkortasunerako Ekintza-Planaren helburuak Iraunkortasunerako Hiri europarren Gutunean (Aalborg-eko gutunean) zehazten diren iraunkortasunerako gidari diren irizpideak jarraituz zehazten dira; eta sintetikoki horrela agertzen zaizkigu:

- Energiatzko, urrezko eta baliabide natural berriztagarrien kontsumo erritmo txikiagoa berezko ordezkatzeko sistemen gaitasunekin alderatuta.
- Baliabide ez berriztagarrien kontsumo erritmo txikiagoa baliabide berriztagarrien erritmoarekin alderatuta.
- Kutsatzaileen igorpen erritmo txikiagoa aireak, urak eta lurrak eurak absorbatu eta prozesatzeko gaitasunarekin alderatuta.
- Dibertsitate biologikoaren, osasun publikoaren eta ingurumen kalitatearen mantenua bizitza eta giza ongizate soziala, baita flora eta faunarena ere, mantentzeko nahikoa mailatan.
- Justizia soziala eta biztanleriaren oinarrizko beharriaren asebetetzea.
- Herriko garapen iraunkorrean biztanleriaren eta tokiko sektoreen parte-hartzea.
- Tokiko garapen ekonomikoa.


Iraunkortasunerako irizpide orokor hauek eta udalerriko Ingurumen Diagnostikoa kontuan hartzeak udalerrientzat ekiteko helburu zehatzak definitzera garamatza. Helburu hauetatik abiatuz, eta euren hierarkizaziotik, Planaren helburu estrategikoak eta Ildo Estrategikoak zehazten dira, Ekintza-Planaren ardatz egituratzaileak direnak.

## 2.2. Egitura eta edukiak

### 2.2.1. Ekintza Planaren Egitura

Iraunkortasunerako Ekintza-Planak egituran **ildo estrategikoen** definizioa du oinarri, hauek osatzen dute Planak erantzun nahi dituen helburu estrategikoak.

Lerro estrategiko bakoitzak bere baitan ditu helburu zehatzak, **Ekintza Programa** gisa zehaztuak. Programa hauek zehazten dituzte **ekintza** multzo batek, hauek antolatuta daude erantzuten dioten helburu orokor eta zehatzaren arabera (ildoak eta programa), deskribapena, erakunde inplikatuak, kostu ekonomikoa eta langileena, diru-iturriak eta ezarri zaion lehentasun maila.



### 2.2.2. Ekintza Planaren oinarritzko ezaugarriak

Ekintzak dira Ekintza-Plana egituratzen eta definitzen duten oinarritzko unitatea, bakoitzak bere izaera du, hurrengo orrietan erakusten den moduan.

Iraunkortasunerako Ekintza-Planaren diseinuan kontuan izan den ekintza kontzeptua zabala da, bere baitan izaera oso ezberdineko ekintzak hartu ditu eta modu honetan antolatu ahalko liriteke:

- **Kudeaketa**

Iraunkortasunerako bidean aurrerapausoak egitea ahalbidetzen duten udalaren kudeaketari lotutako ekintzak.

*Adibidez: azpiegitura zehatz baten ingurumen eraginaren jarraipena egin, motorren akustikaren maila kontrolatzea, udalaz gaindiko herri erakunde baten esku hartzea eskatzea.*

- **Hezkuntza eta parte-hartzea**

Iraunkortasunerako hezkuntzari lotutako ekintzak eta hiritarren eta tokiko komunitateko kide ezberdinen parte-hartzea bultzatzeko balio dutenak.

*Adibidez: Kanpaina hezitzaileak eskoletan, Tokiko Agenda 21en jarraipena egiteko parte-hartzeko organo bat sortzea*

- **Araudia**

Ingurunearekiko eragina, ingurumenaren kudeaketa edo iraunkortasunaren norabidean arituko diren prozesuak eta jarrerak, eta ingurumen kostuen eta onuren barneratzea errazteko arauak sortu edo moldatzea.

*Adibidez: Eguzkitiko energia bultzatuko duten arauak osatzea, arauak udalaz gaindiko ingurumen araudi berrienera moldatzea*

- **Fiskalitatea**

Iraunkortasunaren norabidean arituko diren prozesuak eta jarrerak, eta ingurumen kostuen eta onuren barneratzea errazteko fiskalitatea moldatzea.

*Adibidez: Eguzkitiko energia jasotzeko instalakuntzak gauzatzeko lanen baimenean beherapen fiskalak egitea.*

- **Ekipamenduak eta azpiegiturak**

Ekipamenduen eskuratzea edo azpiegiturak gauzatzeko eragingo duten ekintzak.

*Adibidez: Ur arazketarako eraikuntza egitea, plaka fotovoltaikoak ezartzea, bidegorriak eraikitzea*

- **Iraunkortasun irizpideak barneratzea:**

Udalerriaren kudeaketan edo Udalaren beraren funtzionamenduan ingurumen irizpideak kontuan hartzea eragingo duten ekintzak.

*Adibidez: ingurumen irizpideak txertatzea hirigintza planeamenduan, udalak erositako produktuetan ingurumen irizpideak txertatzea, Udalaren funtzionamenduan jarduera egokia txertatzea*

- **Azterketak**

Iraunkortasunari dagozkion problematikak, prozesuak edo eremuak hobeto baloratu eta ezagutzea ahalbidetuko duten azterketak osatzea edo Ekintza-Planak zehaztu ezin ditzakeen jarduerak bultzatuko dituzten ekintzak.

*Adibidez: Errepideen inbentarioa egitea, konposterako instalakuntza baten bideragarritasunaren azterketa egitea.*



## EKINTZEN EZAUGARRITZEAN ERABILITAKO KONTZEPTUEN DESKRIBAPENA

KONTZEPTUA		DESKRIBAPENA
<b>Kodigoa</b>		Hiru zenbakik osatutako kodigoa, ildoaren, programaren eta ekintza beraren berri ematen duena.
<b>Ekintza</b>		Ekintzaren izenburua.
<b>Ildoa</b>		Ekintza kide den ildo estrategikoaren zenbakia eta izenburua. Ekintzaren helburu orokorra jasotzen du.
<b>Programa</b>		Ekintza kide den programaren zenbakia eta izenburua. Ekintzaren helburu zehatza jasotzen du.
<b>Deskribapena</b>		Ekintzaren oinarrizko definizioa eta izaera.
<b>Exekuzio / ezarpen epea</b>		Exekuzioa (momentuko ekintza baten kasuan) edo ezarpena (iraunkorki edo maiztasunez garatu behar den ekintza baten kasuan) egiteko gehienezko epea.
	<b>Motza (0-1 urte)</b>	Exekuzio / ezarpen epea motza izango dela zehazten du (0tik urte 1era).
	<b>Ertaina (1-3 urte)</b>	Exekuzio / ezarpen epea ertaina izango dela zehazten du (1tik 3 urtera).
	<b>Luzea (3-5 urte)</b>	Exekuzio / ezarpen epea luzea izango dela zehazten du (3tik 5 urtera).
<b>Maiztasuna</b>		Ekintzaren gauzapenerako proposatutako maiztasuna. Ekintza modu iraunkorrean gauzatu behar den kasuan "jarraitua" hitzarekin zehazten da.
<b>Lehentasuna</b>		Zehazten du proposatutako ekintza lehenesten den garrantzia handia duelako, ezaugarri gako batengan duelako eragina, bere ezarpena urgentea delako edo bere ezarpenak ondorio baikor ugari izango dituelako.
<b>Aurreikusitako kostua</b>		Ekintza exekutatu edo ezartzeko aurreikusitako kostua. Zehazten da langile gastuak kontuan hartzen diren ala ez, edo azterketa zehatza behar den baloratzeko.
<b>Erakundeak</b>		Ekintzaren exekuzioan edo ezarpenean esku hartzen duten erakundeak.
<b>Finantzaketa</b>		Ekintzaren finantzaketa ekonomikoan zerikusia duten edo izan dezaketen erakundeak.

<b>Adierazleak</b>	Ekintzaren zeharka edo modu zuzen batean harremanetan diren Iraunkortasunerako Adierazleen Sistemako adierazleak.
<b>Exekuzio kontrola</b>	Ekintzaren garapen edo ezarpen maila zehazten du.
<b>Hasteke</b>	Ez dira ekintzarekin lotutako jarduerak abiatu
<b>Hasita</b>	Ekintzaren lehen faseak bete dira (proiektuaren fasea, beste inplikatuekin harremanak hastea...)
<b>Aurreratua</b>	Ekintzaren lotura duten jarduerak egiten ari dira eta lehen faseak gainditu dira
<b>Amaitzen</b>	Kategoria hau esleitzen zaio ekintzaren exekuzio kontrolaren urtean amaitzen diren inbertsioak direnean; edo maiztasun batez edo modu jarraituan garatu beharreko ekintza exekuzioaren aurretik ezartzen hasi denean.
<b>Amaitua</b>	Kategoria hau esleitzen zaio exekuzio kontrolaren aurreko urtean amaitutako inbertsioak direnean; edo erreferentzia egiten dion problematika desagertu denean

### 2.2.3. Karakterizazio ekonomikoa eta ekintzak burutzeko erantzukizuna

Iraunkortasunerako Ekintza-Planak Udalak osorik edo zati batean finantzaturako ekintzak hartzen ditu kontuan. Esklusiboki Udalez gaindiko administrazioen eskumenekin lotutako ekintzetan, administrazio horren esku-hartzea eskatzeko Udalak egin beharreko eskariaren kostua soilik hartzen da kontuan.

Proposatzen diren ekintzen tipologia eta gai heterogeneitatearen ondorioz, kostuaren ezartze modua ere anitza da, honako kasu zehatzak zehazten dira:

- **Udaleko giza baliabideen kostua soilik duten ekintzak**

Udalan egun badauden giza baliabideen erabilpen mugatua eskatzen duten ekintzak, ez dutenak egungo kontratazio aldarazten, edo beste ekintza baten honezkero aurreikusita dagoen kontratazioa eskatzea, eta beraz kontabilitate bikoitza eragingo zuena.

*Adibidez: Tokiko Agenda 21en organo eragilea sortzea*

- **Kosturik gabeko ekintzak**

Dituzten ezaugarriengatik kostu ekonomiko zuzenik (edo nabaririk) eragingo ez duten ekintzak.

*Adibidez: Hornitzaileen aukeraketan ingurumen irizpideak barneratzea.*

- **Definitzeke**

Duten dimentsioaren eraginez proiektu teknikoa edo azterketa ekonomiko zehatza behar duten ekintzak.

*Adibidez: Konposterako instalakuntza eraikitzea.*

Ekintzetako bakoitzak euren finantzaketa potentzialera lotzen diren erakunde multzoa du. Erakunde ezberdinen finantzaketa lortzea Iraunkortasunerako Ekintza-Planaren kudeaketarako funtsezko eginbeharra da Udal bakoitzarentzat.

**2.3 LERRO ESTRATEGIKOEN  
LABURPENA,  
PROGRAMAK ETA EKINTZAK  
PROGRAMEN LEHENESTEA**

---

**OTXANDIOKO TOKIKO AGENDA 21**

## **ILDO ESTRATEGIKOAK.**

### **OTXANDIOKO IRAUNKORTASUNERAKO EKINTZA-PLANA**

**LE 0. IZAERA INTEGRALA EDUKIKO DUEN EREDU PARTEHARTZAILEA GARATZEA, PLAN ESTRATEGIKO HONEN BIRDEFINIZIOA ETA GAUZATZEA MODU ERAGINKORREZ KOORDINATUKO DITUENA**

**LE 1. UDALERRIAREN IDENTITATEA ETA HAREN KULTURAREN EZAUDARRI NAGUSIAK SENDOTZEA, UDALERRIKO TALDEEN ETA ELKARTEEN INPLIKAZIOAREN BIDEZ**

**LE 2. UDALERRAREN HERRI-LANDA IZAERA SUSTATUZ ETA ESKURA DITUEN BALIABIDE NATURAL ETA ENERGETIKOEN KUDEAKETA IRAUNKORRA EGINEZ, OREKA EKOLOGIKOA BILATZEA**

**LE 3. GARAPEN EKONOMIKO OREKATUA SUSTATZEA JARDUERA IRAUNKORRETAN EDO KUTSADURA-INTENTSITATE TXIKIKOETAN OINARRITUZ, UDALERRIAN BERTAN ENPLEGU IRAUNKORRA ETA KALITATEZKOA SORTZEA AHALBIDETUKO DUENA**

**LE 4. UDALERRIKO BISTANLEEN BIZI-KALITATEA HOBETZEA, OINARRIZKO ZERBITZU PUBLIKOAK OSATUZ ETA GURE HERRIAREN NEURRIARI ETA GIZARTE PREMIEI EGOKITUTAKO EKIPAMENDUA ESKAINIZ, IKTen ERABILERA SUSTATUZ ETA GURE INGURUAREKIKO KOMUNIKAZIOA HOBETUZ**

**LE 5. GURE HERRI-LANDA IZAERARI ETA IDENTITATE EZAUGARRIEI EUTSIZ, UDALERRIKO BIZTANLEEK ETXEBIZITZA IZATEKO BEHAR DIREN BALDINTZAK SORTZEKO GAI IZANGO DEN LURRALDE ANTOLAMENDUA SUSTATZEA**

ILDO ESTRATEGIKOAK,  
EKINTZA PROGRAMAK ETA  
EKINTZAK

OTXANDIOKO IRAUNKORTASUNERAKO EKINTZA-PLANA

<b>LE 0. IZAERA INTEGRALA EDUKIKO DUEN EREDU PARTEHARTZAILEA GARATZEA, PLAN ESTRATEGIKO HONEN BIRDEFINIZIOA ETA GAUZATZEA MODU ERAGINKORREZ KOORDINATUKO DITUENA</b>
<b>P 0.1. Herritarrek parte hartzea ahalbidetu eta bermatuko duen antolakuntza-eredua definitzea eta finkatzea.</b> 0.1.1. Parte-hartzea bermatuko duen antolakuntza ereduaren funtzionamendua zehazteko ordenantza egitea. 0.1.2. Kudeaketaren gardentasuna bermatzeko irizpideak eta neurriak definituko dituen ordenantza egitea. 0.1.3. "Otxandioko Garapen Jasangarrirako Udal Kontseilua" teknikari batez hornitzea, "Tokiko Agenda 21 estrategikoaren" garapena dinamizatzeko.
<b>P 0.2. Plan Estrategiko honen garapenean gazteen inplikazioa bultzatzea</b> 0.2.1. "Tokiko Agenda 21 estrategiko"ko hainbat jarduera gauzatzeko Gazte Asanbladaren inplikazioa sustatzea. 0.2.2. Gazte Asanbladari Gaztetxea eraikitzen laguntzea.
<b>P 0.3. Emakumeek kudeaketa eta erabaki organoetan parte hartzea bultzatzea</b> 0.3.1. Udalerriko emakumeen errealitateari buruzko diagnostiko espezifikoak egitea
<b>P 0.4. Herritarren partaidetza ahalbidetu eta bultzatuko duten tresnak diseinatzea eta finkatzea</b> 0.4.1. Udalerriko talde eta elkarteekin lankidetzeta-hitzarmenak sinatzea, unean uneko jarduerak elkarrekin egiteko. 0.4.2. Web orria garatzea, Udalari buruzko informazio garrantzitsu guztia bertan ipintzeko. 0.4.3. Guzurmaiko aldizkaria argitaratzea. 0.4.4. Parte hartzearen aldeko herritar-sarea sortzea.
<b>P 0.5. Herritarrek parte hartzeko hezteak eta prestatzea</b> 0.5.1. Partaidetzaz arduratuko den teknikaria EHUKo "Parte Hartuz" ikerketa taldeak antolatutako demokrazia partehartzaileari buruzko gradu-ondokoaz trebatu 0.5.2. Parte-hartzean oinarritutako erakunde-eredua sortzeak duen garrantziaz jabetzeko, aldikako kanpainak egitea. 0.5.3. Haurrak parte-hartzean hezteko, ikastegiak batera kanpainak egitea. 0.5.4. Haurren eta gurasoen esku uztea haiei dagozkien erabaki sinpleak. Esaterako: txintxaunak nolakoak eta non ipini.
<b>P 0.6. Durangaldeko Udaltalde 21-eko udalerrien arteko elkarkidetzeta sustatzeko programa</b> 0.6.1. Alkateek osatutako Batzorde Politiko bat osatu eta dinamizatu
<b>P 0.7. Tokiko Agenda 21 prozesuaren jarraipena sustatzeko programa</b> 0.7.1. Herritar Partaidetzarako Foroa bultzatu, Tokiko Ekintza Planaren jarraipena egiteko eta informatzeko eta erabakiak hartzeko partaidetzarako tresna bezala 0.7.2. Eskualdeko garapen iraunkorrerako erreferentziatzeko teknikari bat kontratatzea
<b>LE 1. UDALERRIAREN IDENTITATEA ETA HAREN KULTURAREN EZAUDARRI NAGUSIAK SENDOTZEA, UDALERRIKO TALDEEN ETA ELKARTEEN INPLIKAZIOAREN BIDEZ</b>

**P 1.1. Taldeek eta elkarteek Udalerriaren garapen kultural eta sozialaren protagonismoa era koordinatuan bereganatzea eta egindako lana ezagutaraztea ahalbidetuko duen markoa definitzea eta finkatzea.**

- 1.1.1. Batzorde soziokulturala sortzea (taldeek eta elkarteek osatua) eta kulturako aurrekontu guztia bertara bideratzea.
- 1.1.2. Zine-areto zaharra erostea.
- 1.1.3. Zine-areto zaharrean funtzio anitzeko eraikina eraikitzeko proiektu teknikoa egitea, Udalerriko kultur jarduera guztiaren gune eta, aldi berean, Gizarte eta Kultura Batzordearen egoitza ere izango dena.
- 1.1.4. Zine-areto zaharrean funtzio anitzeko eraikina eraikitzea, Udalerriko kultur jarduera guztiaren gune eta, aldi berean, Gizarte eta Kultura Batzordearen egoitza ere izango dena.
- 1.1.5. Udalerriko gertakari historiko nagusienak era didaktiko batez laburbiltzen dituen ikerketa lan bat egitea.
- 1.1.6. Web gunean atal bat sortzea Udalerriaren historia azaltzeko.
- 1.1.7. Udalerriaren historiako gertakari garrantzitsuenak haurrei helaraztea ahalbidetzeko, ikastegiak material didaktikoz hornitzea.
- 1.1.8. Gerra Zibilarekin eta Udalerriaren izan zituen ondorioekin zerikusia duen memoria historikoa berreskuratzeko lantaldea sortzea Batzorde Soziokulturalaren barruan.
- 1.1.9. Urtean zehar egiten diren ekitaldi garrantzitsuenen erreportaje grafikoa egitea eta web gunean ipintzea.
- 1.1.10. Urtero Erretiratuen Eguna ospatzea.

**P 1.2. Euskara eremu eta maila guztietan garatzeko estrategia definitzea eta ezartzea.**

- 1.2.1. EBPN garatu.
- 1.2.2. EBPN erredaktatzeko eta dinamizatzeko kanpo enpresa bat kontratatzea.
- 1.2.3. Udal-jarduera euskara hutsean izan dadin araudi bat onartzea.
- 1.2.4. UEMAn Sartzea.

**P 1.3. Udalerriara bizitzera etortzen diren pertsonak tokiko eta nazioko errealitatean integratzea.**

- 1.3.1. Liburu/folleto bat egitea Otxandioko herria aurkezteko: kultur eta kirol taldeak, urteko ekitaldi garrantzitsuenak, dendak eta tabernak, telefono-zenbaki eta helbide interesgarriak, Udalerriaren historia, etab. Liburu hori Udalerrian erroldatzen diren guztiei ematea.
- 1.3.2. Urte horretan udalerrian erroldatu diren guztiak urteko bertso-afarira gonbidatzea.
- 1.3.3. Bizilagun berriei Alkatearekin aurrez-aurreko elkarriketa egitera gonbidatzea.
- 1.3.4. "Inkernuz" aldizkarian bizilagun berriei elkarriketak egitea
- 1.3.5. Europako Erkidegotik kanpoko etorkinen eskubideen eta legezko egoeraren berri modu laburrean emango duen dokumentua egitea.
- 1.3.6. Egoitza-agiria lortzeko bete beharreko baldintzak modu laburrean azalduko dituen dokumentua egitea.
- 1.3.7. Euskal Herria eta bertako errealitate sozial eta kulturala ezagutarazteko dokumentua egitea.
- 1.3.8. Helburu bezala pertsona etorkinen kultura ezagutzera ematea duten iharduerak bultzatu

**P 1.4. Euskal Herriaren nazio garapena helburu duten erakundeek ekimenak sustatzea eta haiekin lankidetzan jardutea.**

- 1.4.1. Euskal Herri osoa ordezkatzeko erakundeetan parte hartzea.
- 1.4.2. Euskal Herriaren nazio garapena xede duten jarduerak eta ekimenak diruz laguntzea.
- 1.4.3. Aberri Egunean ekitaldi berezia antolatzea.
- 1.4.4. Udaletxean EHNA iraunkorki tramitatzea.
- 1.4.5. Nafarroako eta Iparraldeko herriei adiskidetzako harremanak sortzea.

**LE 2. UDALERRAREN HERRI-LANDA IZAERA SUSTATUZ ETA ESKURA DITUEN BALIABIDE NATURAL ETA ENERGETIKOEN KUDEAKETA IRAUNKORRA EGINEZ, OREKA EKOLOGIKOA BILATZEA**

**P 2.1. Landa eremuetan bere ezaugarria den paisaia mantentzea**

- 2.1.1. Landa espazioaren erabilera arautuko duen ordenantza bat egin
- 2.1.2. Udal landa lur eta basoen inbentario bat egitea
- 2.1.3. Udal basoen kudeaketa plan bat egitea
- 2.1.4. Mendi pisten eraikuntza eta mantenurako diseinu bat egin.
- 2.1.5. Landa-guneetara edo abeltzaintzako ustategietara doazen bideak egokitzea
- 2.1.6. Landa auzoetara doazen bideak argiztapen publikoz hornitu
- 2.1.7. Baso ez diren landa-lur publikoak nekazaritzarako eta abeltzaintzarako erabiltzea.
- 2.1.8. Larre berriak eratzea bultzatu.
- 2.1.9. Bertako produktuak ezagutarazteko, turismoa eta web gunea erabiltzea.
- 2.1.10. Merkatariekin lankidetzak-akordioak sustatzea bertako produktuak saldu ahal izateko.
- 2.1.11. Gordobil inguruetan atsedenleku berri bat sortzea.
- 2.1.12. Produktuen urteko azoka sustatzea .
- 2.1.13. Mekoletako antzinako eskolaren zaharberritzea eta gizarte-erabilera sustatzea.
- 2.1.14. Udallerri-inguruetan lursail bat gordetzea ortua landu nahi duten guztientzat.
- 2.1.15. Eskola eta Gazte Asanbladarekin batera "Zuhaitz Eguna" antolatu
- 2.1.16. Mekoletan gas-sarea gauzatzea

**P 2.2. Energia eraginkortasuna hobetu eta energia berriztagarriak bultzatu, helburutzat energia buruaskitasuna izanda**

- 2.2.1. Frontoiko teilatuan plaka fotovoltaikoak ipintzea.
- 2.2.2. Udal-igerilekuan plaka termikoak ipintzea.
- 2.2.3. Zine areto zaharrean eraiki beharreko eraikin berrian ikerketa orokor bat egin, bakarrik energia berriztagarriak erabiliz funtziona dezan
- 2.2.4. Energia mini-hidraulikoa aprobetxatzeko ikerketa bat egin.
- 2.2.5. Etxe partikularretan aurrera eraman daitezkeen energia berriztagarri ezberdinak sustatu.

**P 2.3. Energia eraginkortasuna hobetu**

- 2.3.1. Udal eraikin eta zerbitzuen energia-kontsumoari buruzko ikerlana egitea.
- 2.3.2. Bide eta espazio publikoetako argiztapenean energia-kontsumoa murriztea.
- 2.3.3. Udalaren eraikinetan energia-kontsumoa murrizteko neurriak hartzea.
- 2.3.4. Energia aurrezteko eta eraikuntza bioklimatikorako irizpideak jasotzeko ordenantza egitea.

**P 2.4. Uraren kudeaketa iraunkorra bultzatu**

- 2.3.1. Udallerrian izan litezkeen lurrazpiko akuiferoak identifikatzeko azterketa egitea.
- 2.3.2. Ur-hartune berria egitea, uda-sasoian, gaur egun Atxinen dagoena indartzeko edo hura ordezkatzeko.
- 2.3.3. Beste ur-araztegi bat egitea, energia-aurrezteko eta eragindako lokatzen kudeaketa iraunkorrerako irizpideak kontuan hartuta.
- 2.3.4. Auzoetan araztegi txikiak edo putzu septiko egokiak ipintzea.
- 2.3.5. Kolektore-sare nagusia berritzea eta San Antonioraino luzatzea.
- 2.3.6. Ur-biltegi nagusia konpontzea.
- 2.3.7. Saneamendu-sarerako isurketei buruzko araudia egitea.
- 2.3.8. Uraren zentzuzko kontsumoa bultzatzeko kanpainak egitea.

**P 2.5. Etxeko hondakinak birziklatzeko ohitura sustatzea**

- 2.4.1. Birziklatzeko eskaintza osoa garatzea: erabilitako olioak, arropa, tinta-kartutxoak, etab...
- 2.4.2. Konposterako kutxen erabilpena sustatzea.
- 2.4.3. Birziklatzea keta zabor kopurua murrizteak duen garrantzia azpimarratzeko kanpainak egitea.



2.4.4. Edukiontzi ezberdinak era egokian erabiltzeko kanpainak egitea.

**P 2.6. Udalerriko ingurumen-orekaren segimendua egitea eta hori hobetzeko neurriak hartzea**

2.5.1. Udalerrian egiten diren jarduera kutsakorrek eta horiek eragiten duten kutsadura mota jasotzen dituen datu-basea egitea.

2.5.2. Ibaietako uren kalitatea neurtzea.

2.5.3. Udalaren eguneroko kudeaketan iraunkortasun-irizpideak finkatzea: kontratazio-pleguak, bulegoko materiala erostea, etab...

2.5.4. Gazte Asanbladarekin batera Erreka Eguna antolatzea

2.5.5. Airearen Kalitatearen neurketa bat egitea.

**LE 3. GARAPEN EKONOMIKO OREKATUA SUSTATZEA JARDUERA IRAUNKORRETAN EDO KUTSADURA-INTENTSITATE TXIKIKOETAN OINARRITUZ, UDALERRIAN BERTAN ENPLEGU IRAUNKORRA ETA KALITATEZKOA SORTZEA AHALBIDETUKO DUENA**

**P 3.1. Izaera endogenoa duen eta ingurumenarekin errespetuz jardungo duen Industria-garapen orekatua babestu eta lagundu**

3.1.1 Herriguneko sarreretan industriguneeen eta bertan dauden enpresen kokapena adierazi

3.1.2 Herriguneean dauden enpresak industrigunera aldatzeko kudeaketa-lanak egitea.

3.1.3 Aulasa eta Amenabarreko industrigunera doan bidea argizatzea eta espaloiez janztea.

3.1.4 Gas-sarea Aulasa eta Amenabarrera eramatea.

3.1.5 Eskolako ikasleekin Udalerriko enpresetarako bisitaldiak egitea.

3.1.6 Erakunde publikoekin loturiko edozein arloren inguruko zalantzak argitzeko Udal teknikari bat jarri

**P 3.2. Industrigunea garatzea eta industriaren dibertsifikazioa sustatzea**

3.2.1 Gas-sarea industrigunera eramatea.

3.2.2 Industriguneean lursail bat prestatzea Udalerrian dauden negozio autonomoei zerbitzua eskaintzeko.

3.2.3 Industrigunea enpresa ez-kutsatzaileak erakartzeko promozionatu (energia berriztagarrietara zuzenduriko enpresak, teknologi aberriak, ikerketa enpresak, etab...).

3.2.4 Industriguneearen erdia garatu.

**P 3.3. Beharrian berriak asetzea ahalbidetuko duen eta oinarrizko merkataritza sustatuko duen zerbitzu ekonomia sortzea, ekoizpen-sektorearekin orekan**

3.3.1 Gune Historikoko zenbait oruberren beheko solairuak merkataritza-jardueretarako gordetzea.

3.3.2 Merkatarien elkarte bat sortzea bultzatu.

3.3.3 Oinarrizko merkataritzari eusteak duen garrantziari buruzko kanpaina bat egitea

3.3.4 Negozio berria abiarazi nahi duten pertsonen orientazioa eta laguntza eskaintzea.

3.3.5 Industriguneean geratzen den atala osatu eta bertan zerbitzu enpresa txikiak jasotzeari zuzenduriko eraikin bat sortu.

**P 3.4. Turismo garapen iraunkorra sustatzea, Udalerriaren aktibo kultural eta naturalak balioesteko eta lehenengo sektorean eta zerbitzuen sektorean jarduera ekonomikoari eusten laguntzeko**

3.4.1 Turismoaren iharduerarekin loturiko hazkunde ekonomiko iraunkorraren aukeren inguruko ikerketa bat egin.

3.4.2 Gune historikoaren kanpoaldeko disuasio-aparkalekuen, Presazelaiko harrera eremuaren eta orokorrean udalerriko harrera gaitasunaren ikerketa bat egin.

3.4.3 Ikerketa emaitzen arabera udalerriaren turismo dinamizazio plan bat diseinatzea.

**P 3.5. Udalerriko ekonomian esku hartzen duten eragile guztiak hartuko dituen organoa ezartzea, udalerrriaren garapen ekonomiko osoaren segimendua egiteko**

- 3.5.1 Udalerriko enpresei, saltegiei eta negozioei buruzko datu-basea egitea: telefonoa, helbide elektronikoa, etab...
- 3.5.2 Udalerriko enpleguaren kalitatearen segimendua egitea.
- 3.5.3 Udalerriko aldagai ekonomikoen segimendua egitea.

**LE 4. UDALERRIKO BIZTANLEEN BIZI-KALITATEA HOBETZEA, OINARRIZKO ZERBITZU PUBLIKOAK OSATUZ ETA GURE HERRIAREN NEURRIARI ETA GIZARTE PREMIEI EGOKITUTAKO EKIPAMENDUA ESKAINIZ, IKTen ERABILERA SUSTATUZ ETA GURE INGURUAREKIKO KOMUNIKAZIOA HOBETUZ**

**P 4.1. Oinarrizko zerbitzu publikoak hobetzea eta osatzea**

- 4.1.1. Oinarrizko gizarte-zerbitzuak eskaintzea.
- 4.1.2. Haurtzaindegi zerbitzua sortu, bere beharra justifikatzen duen ikerketa burutu ondoren.
- 4.1.3. Eskola handitzea eta haurtzaindegi-zerbitzua sortzea.
- 4.1.4. Osasun-zentroa handitzea eta zerbitzu berriak emateko egokitu: pediatria-zerbitzua, etab...
- 4.1.5. Nagusien egoitza berritzea.
- 4.1.6. Hirugarren adineko zerbitzuen beharrak ezagutzeko ikerketa bat egin: janariak, errehabilitazioa, aste buruetako eta oporraldietako egonaldiak, eguneko zentroa, urrutiko asistentzia,.... Ikerketa zerbitzu mota hauek eskaintzeko egoitza handitzera zuzendua egongo da.
- 4.1.7. Erretiratuen egoitza irisgarritasun neurriak betetzen dituen leku batera mugitu.

**P 4.2. Kaleen garbitasuna hobetzea eta berdeguneak mantentzea**

- 4.2.1. Kale garbitzaile bat eta garbiketarako eta lorezaintzarako ekipo osagarria erosi.
- 4.2.2. Herri-bideetan eta espazio publikoetan –Mañondoko eskola-gunea barne– lurrera ezein objektu, ontzi edota hondakin botatzea saihesteko kanpainak egitea.
- 4.2.3. Zabor edukiontzien zaborra, kartoia edo plastikoak ez husteko kanpainak egitea.
- 4.2.4. Udalerriko berdeguneetarako diseinua definitzea: zuhaitzak, ezkaia, etab... landatzea
- 4.2.5. Udalerriko berdeguneetan zuhaitz eta hesiak landatzea.

**P.4.3. Gure udalerrriaren neurriari egokitutako zerbitzu publiko osagarrien eskaintza sortzea**

- 4.3.1. KZgunea sendotzea, bere erabilera arautu eta erabiltzaileei maila neurtzeko azterketa bat egitea.
- 4.3.2. Negurako jarduera- eta ikastaro-programa bat diseinatzea.
- 4.3.3. Liburutegi, ludoteka eta "Udaleku" zerbitzuak eskaintzen jarraitzea. Ludoketa eta "Udaleku" zerbitzuek ez duten zertan doakoak izan behar.
- 4.3.4. Etorkizunean sor litezkeen zerbitzuak jasotzeko lokalak hartu.

**P. 4. 4. Kirol eta aisialdirako ekipamenduak eta azpiegiturak hobetzea eta osatzea**

- 4.4.1. Frontoiko aldagelen banaketa definitzea gaur egungo eta etorkizuneko premiei erantzun ahal izateko: gimnasia-lekua kokatzeko aukera aztertzea.
- 4.4.2. Frontoiko ekipamenduak osatzea: saski-baloiko saskiak...
- 4.4.3. Frontoiaren aurrean funtzio anitzeko kantxa estalia egitea.
- 4.4.4. Igerilekuetako taberna berritzea; horretarako, itxi, eta ogitartekoak eta aperitiboak emateko prestatuko da.
- 4.4.5. Mainondo futbol-zelaiko argiztapena hobetzea.
- 4.4.6. Udalerriko txintxaun-guneak diseinatzea.
- 4.4.7. Udalerriko beste hainbat tokitan kirol-ekipamenduak ipintzea.
- 4.4.8. Igerilekuen atzean dagoen zuhaitzia erostea eta mahaiak eta barbakoak ipintzea.
- 4.4.9. Frontoirako airezko berogailuak erostea.
- 4.4.10. Mainondo futbol-zelaian belar artifiziala ipintzea.
- 4.4.11. Eskolarekin eta Gazte Asanbladakoekin batera, jendea udalerriko ekipamenduak eta

azpiegiturak zaintzearen garrantziaz jabetzeko kanpainak egitea.
<b>P.4.5. IKTen garapena sustatzea</b> 4.5.1. Ordenagailuen erabilerari buruzko oinarrizko ikastaroa egitea, Gazte Asanbladakoekin eta <i>Pasealeku Erretiratuen Elkarte</i> koekin elkarlanean. 4.5.2. Gazte Asanbladakoekin eta <i>Pasealeku Erretiratuen Elkarte</i> koekin batera web gunearen erabilerari buruzko ikastaroa antolatzea. 4.5.3. Gazte Asanbladakoekin eta <i>Pasealeku Erretiratuen Elkarte</i> koekin batera Internet nola erabili eta zer aukera dituen ikasteko ikastaroa antolatzea. 4.5.4. KZgunean eskaintzen diren zerbitzuen inguruko kanpaina bat egin. 4.5.5. Udal mailako banda zabal sare bat sortzeko aukera aztertu.
<b>P. 4.6. Barneko nahiz kanpoko joan-etorrietan nork bere ibilgailua ez erabiltzea sustatzea</b> 4.6.1. Barneko joan-etorrietan nork bere ibilgailua ez erabiltzea sustatzeko kanpainak egitea. 4.6.2. Gune Historikotik hurbil dauden tokietan pibotak ipintzea aparkatzea debekatuta dagoen lekuetan. 4.6.3. Garraio publikoa erabiltzea sustatzeko kanpainak egitea. 4.6.4. Nork bere ibilgailua gehiegi erabiltzearen ondorioei buruzko kanpaina eginez, automobilik gabeko egunean parte hartzea. 4.6.5. Gaizki aparkatutako ibilgailuetan informazio oharrak jarri. 4.6.6. Eskualdeko Mugikortasun Iraunkorraren Hobekuntza Plan bat egitea.
<b>P. 4.7. Durango eta Gasteizerako garraio publikoa hobetzea</b> 4.7.1. Durango-Gasteiz lineako autobusen maiztasuna handitzeko eskatzea Bizkaia eta Arabako Foru Aldundiei.
<b>LE 5. GURE HERRI-LANDA IZAERARI ETA IDENTITATE EZAUGARRIEI EUTSIZ, UDALERRIKO BIZTANLEEK ETXEBIZITZA IZATEKO BEHAR DIREN BALDINTZAK SORTZEKO GAI IZANGO DEN LURRALDE ANTOLAMENDUA SUSTATZEA</b>
<b>P 5.1. Lurraldea oro har, eta Alde Zaharra bereziki, arautzeko eta ordenatzeko ordenazio planak diseinatzea eta gauzatzea</b> 5.1.1. Arau Subsidiarioak berrikustea. 5.1.2. Ospitale kalea zirkulaziorako bi norabideko kale bihurtzea. 5.1.3. "A.R.I."-a adierazi eta "P.E.R.I."-a idatzi 5.1.4. Udalerriko kale guztietan norabideak definitzea eta seinalatzea, eta gune garrantzitsuak seinalatzea: enpresak, aparkalekuak, etab...
<b>P 5.2. Udalerriko gazteei zentzuzko baldintzetan etxebizitza izateko aukera bermatuko dien etxebizitza-politika diseinatzea eta ezartzea</b> 5.2.1. Etxebizitza-premiak ezagutzeko, herritarrei inkestak egitea. 5.2.2. Otxandio XXI" enpresa publikoaren bitartez babes publikoko etxebizitzak sustatzea. 5.2.3. Jarduera-eremu garrantzitsuenetan lurzorua erostea. 5.2.4. Enpresa publikoak sustatutako etxebizitza babestua lortzeko baldintzak arautzeko ordenantza garatzea. 5.2.5. Enpresa pribatuek sustatu eta Udalaren babesa duten etxebizitzetarako ordenantza definitzea. 5.2.6. Alogerean eta salgai dauden etxebizitzen zerrenda bat egitea eta eguneratuta mantentzea.
<b>P 5.3. Alde Zaharraren berreskurapen urbanistikoa sustatzea, eta bertatik ibilgailu pribatuak atertzea ahalbidetzeko aparkaleku eskaintza sortzea</b> 5.3.1. Gune Historikoa oinezkoentzako gune bihurtzea. 5.3.2. Aparkaleku gomendatuak egitea Gune Historikorako sarreretan: etxebizitza sozialak

<p>Urigoienako atzeko aldean eta Ospitale kalean.</p> <p>5.3.3. Gune Historikoan bizi direnei aparkalekua eskaintzeko, lurrazpiko parkinga egitea.</p> <p>5.3.4. Gune Historikoko etxe bakoitzerako kudeaketa-fitxa bat egitea: jabeak, kontserbazio-egoera, salmenta-prezioa, etab ...</p> <p>5.3.5. Orubeen Udal-erregistro bat egitea.</p> <p>5.3.6. Egoera kaxkarrean dauden etxebizitzak aurri-prozedurak gauzatzea.</p> <p>5.3.7. Gune Historikoko etxebizitzak zaharberritzeko, partikularrei dauden laguntzei buruz aholkatzea.</p> <p>5.3.8. Plaza Nagusia, frontoia eta Bolatoki-Pasealekua berritzea.</p> <p>5.3.9. Andikona plaza berritzea.</p> <p>5.3.10. Elizaren inguruak (atzeko aldea) berritzea</p>
<p><b>P 5.4. Espazio publikoen eta hornikuntza sareen egokitzapen graduala sustatzea</b></p> <p>5.4.1. Ur-hornikuntzarako eta saneamenduko sare eta kutxeten eta giltzen kokapenaren artxibo digitalizatua egitea, ondoren bere mantenua eta berrikuntza planifikatu ahal izateko</p> <p>5.4.2. Mendilerroan udal-pabilioia egitea eta mantentze-lanetarako behar den materialaz hornitzea.</p> <p>5.4.3. Irisgarritasun-planearan ezarritako irizpideak kontuan hartzea, edozein hobekuntza-obra ekitean.</p>
<p><b>P 5.5. Eraikin publiko garrantzitsuenak irisgarritasun legeari egokitzea</b></p> <p>5.5.1. Udaletxearen atzeko aldeko orubea erostea.</p> <p>5.5.2. Udaletxea handitzea eta atzeko aldean igogailua ipintzea.</p> <p>5.5.3. Osasun-zentroan beharrezkoak diren hobekuntzak egitea.</p>

**EKINTZEN  
DESKRIBAPEN FITXAK**

---

**OTXANDIOKO TOKIKO AGENDA 21**

## 0.1.1 Ekintza

**Parte-hartzea bermatuko duen antolakuntza ereduaren funtzionamendua zehazteko ordenantza egitea**

<b>Lerroa</b>	<b>LE 0. IZAERA INTEGRALA EDUKIKO DUEN EREDU PARTEHARTZAILEA GARATZEA, PLAN ESTRATEGIKO HONEN BIRDEFINIZIOA ETA GAUZATZEA MODU ERAGINKORREZ KOORDINATUKO DITUENA</b>		
<b>Programa</b>	P 0.1. Herritarrek parte hartzea ahalbidetu eta bermatuko duen antolakuntza-eredua definitzea eta finkatzea		
<b>Deskribapena</b>	<p>Ordenantza honen helburua tokiko demokraziaren gardentasuna eta kalitatea bermatzen duen Herritar Partaidetza sustatu eta garatzea litzateke.</p> <p>Besteak beste hurrengo gaiak jorratuz osatuko litzateke:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Herritar partaidetza posible egiten duten bide eta erakundeak definitu eta arautu.</li> <li>- Herritarren parte hartzea erraztu, norbanako dezala zein taldean, partaidetzan emakumeen aukera berdintasuna posible egingo duten neurri zehatzak aurrera eramanez.</li> <li>- Elkarteen garapena eta ordezkartza sustatu.</li> <li>- Udalaren egituran eta biztanlerian orokorrean partaidetzaren kultura sustatu.</li> <li>- Elkartasuna, besteenganako errespetua, elkarrenganako ardura eta gizarte kohesioaren baloreak zabaldu.</li> </ul>		
<b>Lehentasuna</b>	Altua	<b>Gauzatze-epea/Ezartze-epea</b>	Laburra (0-1urte)
<b>Maiztasuna</b>	Puntuala	<b>Urteak</b>	2009
<b>Aurreikusitako kostua</b>	0€		
<b>Oharrak</b>			
<b>Adierazleak</b>	12.Adierazlea: Herritarrek tokiko komunitatearekin duten gogobetetze-maila 19. Adierazlea: Biztanleria-Administrazio harremana		
<b>Exekuzio kontrola</b>	Hasteko Zain		
<b>Jarraipen / exekuzio erantzukizuna</b>	Otxandioko Udala		
<b>Finantzaketa</b>	-		

## 0.1.2 Ekintza

## Kudeaketaren gardentasuna bermatzeko irizpideak eta neurriak definituko dituen ordenantza egitea

<b>Lerroa</b>	<b>LE 0. IZAERA INTEGRALA EDUKIKO DUEN EREDU PARTEHARTZAILEA GARATZEA, PLAN ESTRATEGIKO HONEN BIRDEFINIZIOA ETA GAUZATZEA MODU ERAGINKORREZ KOORDINATUKO DITUENA</b>		
<b>Programa</b>	P 0.1. Herritarrek parte hartzea ahalbidetu eta bermatuko duen antolakuntza-eredua definitzea eta finkatzea		
<b>Deskribapena</b>	Ordenantza honen helburua Udal kudeaketan informazio ematea eta gardentasuna sustatzea da. Besteak beste hurrengo gaiak jorratuz osatuko litzateke: <ul style="list-style-type: none"> <li>- Biztanleriaren interes orokorren kudeaketan eta babesean herritarren partehartzea erraztu.</li> <li>- Kudeaketaren argitasuna sustatu, egiazkoa eta argia den informazioaren bitartez, kontsulta sistema eraginkor bat ezarriz eta herritarrekin eztabaidatzeko topaketa espazioak zabalduz, herria udal kudeaketan parte har dezan.</li> <li>- Herritarrek udal kudeaketa kontrolatzeko neurriak ezarri.</li> </ul>		
<b>Lehentasuna</b>	Altua	<b>Gauzatze-epea/Ezartze-epea</b>	Laburra (0-1urte)
<b>Maiztasuna</b>	Puntuala	<b>Urteak</b>	2009
<b>Aurreikusitako kostua</b>	0€		
<b>Oharrak</b>			
<b>Adierazleak</b>	12. Adierazlea: Herritarrek tokiko komunitatearekin duten gogobetetze-maila 19. Adierazlea: Biztanleria-Administrazio harremana		
<b>Exekuzio kontrola</b>	Hasteko Zain		
<b>Jarraipen / exekuzio erantzukizuna</b>	Otxandioko Udala		
<b>Finantzaketa</b>	-		

## 0.1.3 Ekintza

**“Otxandioko Garapen Jasangarrirako Udal Kontseilua” teknikari batez hornitzea, “Tokiko Agenda 21 estrategikoaren” garapena dinamizatzeke**

<b>Lerroa</b>	<b>LE 0. IZAERA INTEGRALA EDUKIKO DUEN EREDU PARTEHARTZAILEA GARATZEA, PLAN ESTRATEGIKO HONEN BIRDEFINIZIOA ETA GAUZATZEA MODU ERAGINKORREZ KOORDINATUKO DITUENA</b>		
<b>Programa</b>	P 0.1. Herritarrek parte hartzea ahalbidetu eta bermatuko duen antolakuntza-eredua definitzea eta finkatzea		
<b>Deskribapena</b>	Partaidetza prozesuak dinamizatuko dituen teknikari baten papera guztiz beharrezkoa da, kasu honetan “Otxandioko Garapen jasangarrirako Udal Kontseilua”. Talde lan eta lan-mahai dinamiketan aditu aizan beharko da, kontseilu honen parte diren bizilagunen lana zuzenduko duena eta bilera ezberdinetan emaitza erabilgarriak lortzen lagunduko duena. Teknikari hau aldi berean Ekintza Plan hau eta Plan estrategikoa garatzearen arduraduna izango da.		
<b>Lehentasuna</b>	Altua	<b>Gauzatze-epea/Ezartze-epea</b>	Laburra (0-1urte)
<b>Maiztasuna</b>	Jarraia	<b>Urteak</b>	2008-2009
<b>Aurreikusitako kostua</b>	60.000€		
<b>Oharrak</b>			
<b>Adierazleak</b>	12.Adierazlea: Herritarrek tokiko komunitatearekin duten gogobetetze-maila 19. Adierazlea: Biztanleria-Administrazio harremana		
<b>Exekuzio kontrola</b>	Hasteko Zain		
<b>Jarraipen / exekuzio erantzukizuna</b>	Otxandioko Udala		
<b>Finantzaketa</b>	Otxandioko Udala		



## 0.2.1 Ekintza

**“Tokiko Agenda 21 estrategiko”ko hainbat jarduera gauzatzeko Gazte Asanbladaren inplikazioa sustatzea**

<b>Lerroa</b>	<b>LE 0. IZAERA INTEGRALA EDUKIKO DUEN EREDU PARTEHARTZAILEA GARATZEA, PLAN ESTRATEGIKO HONEN BIRDEFINIZIOA ETA GAUZATZEA MODU ERAGINKORREZ KOORDINATUKO DITUENA</b>		
<b>Programa</b>	P 0.2. Plan Estrategiko honen garapenean gazteen inplikazioa bultzatzea.		
<b>Deskribapena</b>	Tokiko Agenda 21 Estrategikoaren zenbait ekintzek Gazte Asanblada dute eragile nagusizat, eta horrek berebiziko garrantzia ematen dio talde horrek ekintza horiek aurrera eramateko laguntza ematera prest egoteari. Gazte Asanblada prozesu honetan barneratzearen helburu nagusia Udala eta Otxandioko gazteria ordezkatzen duen elkartearen arteko elkarkidetzaz bilatzea da.		
<b>Lehentasuna</b>	Altua	<b>Gauzatzeko epea/Ezartze-epea</b>	Laburra (0-1urte)
<b>Maiztasuna</b>	Jarraia	<b>Urteak</b>	2007
<b>Aurreikusitako kostua</b>	0€		
<b>Oharrak</b>			
<b>Adierazleak</b>	12.Adierazlea: Herritarrek tokiko komunitatearekin duten gogobetetze-maila		
<b>Exekuzio kontrola</b>	Hasteko Zain		
<b>Jarraipen / exekuzio erantzukizuna</b>	Otxandioko Udala		
<b>Finantzaketa</b>	-		

**0.2.2 Ekintza**

**Gazte Asanbladari Gaztetxea eraikitzen laguntzea**

<b>Lerroa</b>	<b>LE 0. IZAERA INTEGRALA EDUKIKO DUEN EREDU PARTEHARTZAILEA GARATZEA, PLAN ESTRATEGIKO HONEN BIRDEFINIZIOA ETA GAUZATZEA MODU ERAGINKORREZ KOORDINATUKO DITUENA</b>		
<b>Programa</b>	P 0.2. Plan Estrategiko honen garapenean gazteen inplikazioa bultzatzea.		
<b>Deskribapena</b>	Ekintza honen bitartez Udalak Gazte Asanbladari gaztetxearen eraikuntzan laguntzea bilatzen da.		
<b>Lehentasuna</b>	Ertaina	<b>Gauzatze-epea/Ezartze-epea</b>	Ertaina (1-3 urte)
<b>Maiztasuna</b>	Puntuala	<b>Urteak</b>	2009-2010
<b>Aurreikusitako kostua</b>	60.000€		
<b>Oharrak</b>			
<b>Adierazleak</b>	12.Adierazlea: Herritarrek tokiko komunitatearekin duten gogobetetze-maila		
<b>Exekuzio kontrola</b>	Hasteko Zain		
<b>Jarraipen / exekuzio erantzukizuna</b>	Otxandioko Udala		
<b>Finantzaketa</b>	Otxandioko Udala		

## 0.3.1 Ekintza

## Udalerriko emakumeen errealitateari buruzko diagnostiko espezifikoaren egitea

<b>Lerroa</b>	<b>LE 0. IZAERA INTEGRALA EDUKIKO DUEN EREDU PARTEHARTZAILEA GARATZEA, PLAN ESTRATEGIKO HONEN BIRDEFINIZIOA ETA GAUZATZEA MODU ERAGINKORREZ KOORDINATUKO DITUENA</b>		
<b>Programa</b>	P 0.3. Emakumeek kudeaketa eta erabaki organoetan parte hartzea bultzatzea		
<b>Deskribapena</b>	Ekintza honen helburua Otxandioko errealitatean emakumearen egoera jakitea da, ikerketa horren emaitzetan oinarrituz berdintasunerako neurri zehatzak ezarri ahal izateko.		
<b>Lehentasuna</b>	Ertaina	<b>Gauzatze-epea/Ezartze-epea</b>	Laburra (0-1urte)
<b>Maiztasuna</b>	Puntuala	<b>Urteak</b>	2010
<b>Aurreikusitako kostua</b>	12.000€		
<b>Oharrak</b>			
<b>Adierazleak</b>	12.Adierazlea: Herritarrek tokiko komunitatearekin duten gogobetetze-maila		
<b>Exekuzio kontrola</b>	Hasteko Zain		
<b>Jarraipen / exekuzio erantzukizuna</b>	Otxandioko Udala		
<b>Finantzaketa</b>	Otxandioko Udala		

## 0.4.1 Ekintza

**Udalerriko talde eta elkarteekin lankidetzaz hitzarmenak sinatzea, unean uneko jarduerak elkarrekin egiteko**

<b>Lerroa</b>	<b>LE 0. IZAERA INTEGRALA EDUKIKO DUEN EREDU PARTEHARTZAILEA GARATZEA, PLAN ESTRATEGIKO HONEN BIRDEFINIZIOA ETA GAUZATZEA MODU ERAGINKORREZ KOORDINATUKO DITUENA</b>		
<b>Programa</b>	P 0.4. Herritarren partaidetza ahalbidetu eta bultzatuko duten tresnak diseinatzea eta finkatzea		
<b>Deskribapena</b>	Plan honetan eta beste batzuetan proposaturiko zenbait ekintza udalerriko zenbait talde edo elkarrekin partaidetza eta laguntza behar dute. Helburua beraz elkarrekin arte laguntza hori akordio edo hitzarmenen bidez gauzatzea da.		
<b>Lehentasuna</b>	Altua	<b>Gauzatze-epea/Ezartze-epea</b>	Ertaina (1-3 urte)
<b>Maiztasuna</b>	Jarraia	<b>Urteak</b>	2007-2009
<b>Aurreikusitako kostua</b>	0€		
<b>Oharrak</b>			
<b>Adierazleak</b>	12. Adierazlea: Herritarrek tokiko komunitatearekin duten gogobetetze-maila 19. Adierazlea: Biztanleria-Administrazio harremana		
<b>Exekuzio kontrola</b>	Hasteko Zain		
<b>Jarraipen / exekuzio erantzukizuna</b>	Otxandioko Udala		
<b>Finantzaketa</b>	-		

## 0.4.2 Ekintza

## Web orria garatzea, Udalari buruzko informazio garrantzitsu guztia bertan ipintzeko

<b>Lerroa</b>	<b>LE 0. IZAERA INTEGRALA EDUKIKO DUEN EREDU PARTEHARTZAILEA GARATZEA, PLAN ESTRATEGIKO HONEN BIRDEFINIZIOA ETA GAUZATZEA MODU ERAGINKORREZ KOORDINATUKO DITUENA</b>		
<b>Programa</b>	P 0.4. Herritarren partaidetza ahalbidetu eta bultzatuko duten tresnak diseinatzea eta finkatzea		
<b>Deskribapena</b>	Herritar partaidetzaren eta udal kudeaketaren argitasunaren oinarrietako bat izaera publikoa duen informazio guztia herritarrek eskuragarri izatea da. Informazio hau bideratzeko era eraginkor eta arin bat udal web orrialdea da, bertan Udala eta udalerraren informazio garrantzitsu dena bildu baitaiteke.		
<b>Lehentasuna</b>	Altua	<b>Gauzatze-epea/Ezartze-epea</b>	Laburra (0-1urte)
<b>Maiztasuna</b>	Jarraia	<b>Urteak</b>	2008
<b>Aurreikusitako kostua</b>	12.000€		
<b>Oharrak</b>			
<b>Adierazleak</b>	12.Adierazlea: Herritarrek tokiko komunitatearekin duten gogobetetze-maila		
<b>Exekuzio kontrola</b>	Hasita		
<b>Jarraipen / exekuzio erantzukizuna</b>	Otxandioko Udala		
<b>Finantzaketa</b>	-		

## 0.4.3 Ekintza

## Guzurmaiko aldizkaria argitaratzea

<b>Lerroa</b>	<b>LE 0. IZAERA INTEGRALA EDUKIKO DUEN EREDU PARTEHARTZAILEA GARATZEA, PLAN ESTRATEGIKO HONEN BIRDEFINIZIOA ETA GAUZATZEA MODU ERAGINKORREZ KOORDINATUKO DITUENA</b>		
<b>Programa</b>	P 0.4. Herritarren partaidetza ahalbidetu eta bultzatuko duten tresnak diseinatzea eta finkatzea		
<b>Deskribapena</b>	Guzurmaiko udalerriko gaurkotasunaren informazioa jasotzen duen Udalak berak argitaratutako hiruhileko aldizkaria da, eta bertan udalaren proiektuak azaldu edo udal kudeaketaren datuak azaltzen dira besteak beste. Ekintza honen helburu abere argitalpenarekin jarraitzea da.		
<b>Lehentasuna</b>	Altua	<b>Gauzatze-epea/Ezartze-epea</b>	Laburra (0-1urte)
<b>Maiztasuna</b>	Jarraia	<b>Urteak</b>	2006
<b>Aurreikusitako kostua</b>	6.000€ urtean		
<b>Oharrak</b>			
<b>Adierazleak</b>	12.Adierazlea: Herritarrek tokiko komunitatearekin duten gogobetetze-maila		
<b>Exekuzio kontrola</b>	Hasita		
<b>Jarraipen / exekuzio erantzukizuna</b>	Otxandioko Udala		
<b>Finantzaketa</b>	Otxandioko Udala		

## 0.4.4 Ekintza

## Parte hartzearen aldeko herritar-sarea sortzea

<b>Lerroa</b>	<b>LE 0. IZAERA INTEGRALA EDUKIKO DUEN EREDU PARTEHARTZAILEA GARATZEA, PLAN ESTRATEGIKO HONEN BIRDEFINIZIOA ETA GAUZATZEA MODU ERAGINKORREZ KOORDINATUKO DITUENA</b>		
<b>Programa</b>	P 0.4. Herritarren partaidetza ahalbidetu eta bultzatuko duten tresnak diseinatzea eta finkatzea		
<b>Deskribapena</b>	Otxandion aurrera eraman den hausnarketa estrategikoaren prozesuan talde lan, foro, bilera etab...etarako auzokide askoren laguntza eta partaidetza eman da, eta horrek parte hartzeko prest egon diren pertsona eta elkarten datu base oso interesgarri bat izatea eman du emaitzat. Ekintza honen helburua pertsona et atalde horiekin parte hartzearen aldeko herritar-sare bat sortzea da.		
<b>Lehentasuna</b>	Baxua	<b>Gauzatze-epea/Ezartze-epea</b>	Laburra (0-1urte)
<b>Maiztasuna</b>	Puntuala	<b>Urteak</b>	2012
<b>Aurreikusitako kostua</b>	3.000€		
<b>Oharrak</b>			
<b>Adierazleak</b>	12. Adierazlea: Herritarrek tokiko komunitatearekin duten gogobetetze-maila 19. Adierazlea: Biztanleria-Administrazio harremana		
<b>Exekuzio kontrola</b>	Hasita		
<b>Jarraipen / exekuzio erantzukizuna</b>	Otxandioko Udala		
<b>Finantzaketa</b>	-		

## 0.5.1 Ekintza

**Partaidetzaz arduratuko den teknikaria EHUko “Parte Hartuz” ikerketa taldeak antolaturiko demokrazia partehartzaileari buruzko gradu-ondokoaz trebatu**

<b>Lerroa</b>	<b>LE 0. IZAERA INTEGRALA EDUKIKO DUEN EREDU PARTEHARTZAILEA GARATZEA, PLAN ESTRATEGIKO HONEN BIRDEFINIZIOA ETA GAUZATZEA MODU ERAGINKORREZ KOORDINATUKO DITUENA</b>		
<b>Programa</b>	P 0.5. Herritarrak parte hartzeko hezte eta prestatzea		
<b>Deskribapena</b>	Otxandioko udalak herritar partaidetzaren alde egiten duen apustuan beharrezkoa da herritar partaidetza dinamizatu eta antolatzearen arduraduna gai horien inguruan aditua izatea, prozesu partehartzaileetarako monitorizazioan eta dinamizazioan, talde dinamiketan, demokrazia partehartzailean,... batez ere. Gaur egun EHUko “Parte Hartuz” ikerketa taldeak ezaugarri horiek dituen gradu-ondoko ikastaro bat darama aurrera, eta horrek interesgarria egiten du teknikaria haren bitartez trebatzea.		
<b>Lehentasuna</b>	Ertaina	<b>Gauzatze-epea/Ezartze-epea</b>	Ertaina (1-3 urte)
<b>Maiztasuna</b>	Jarraia	<b>Urteak</b>	2009-2010
<b>Aurreikusitako kostua</b>	2.000€		
<b>Oharrak</b>			
<b>Adierazleak</b>	12. Adierazlea: Herritarrek tokiko komunitatearekin duten gogobetetze-maila 19. Adierazlea: Biztanleria-Administrazio harremana		
<b>Exekuzio kontrola</b>	Hasteko Zain		
<b>Jarraipen / exekuzio erantzukizuna</b>	Otxandioko Udala		
<b>Finantzaketa</b>	Otxandioko Udala		



## 0.5.2 EKintza

**Parte-hartzean oinarritutako erakunde-eredua sortzeak duen garrantziaz jabetzeko, aldikako kanpainak egitea**

<b>Lerroa</b>	<b>LE 0. IZAERA INTEGRALA EDUKIKO DUEN EREDU PARTEHARTZAILEA GARATZEA, PLAN ESTRATEGIKO HONEN BIRDEFINIZIOA ETA GAUZATZEA MODU ERAGINKORREZ KOORDINATUKO DITUENA</b>		
<b>Programa</b>	P 0.5. Herritarrak parte hartzeko hezte eta prestatzea		
<b>Deskribapena</b>	Nahiz eta Otxandioko Udalak herritar partaidetzaren aldeko apustua egin duen, biztanleria bera eragile moduan duen garrantziaz kontzientziatu beharra dago, eta horretarako beharrezkoa da aldiro partaidetzaren prozesua, metodologia, emaitzak,... ezagutzera emateko kanpainak egitea.		
<b>Lehentasuna</b>	Ertaina	<b>Gauzatze-epea/Ezartze-epea</b>	Ertaina (1-3 urte)
<b>Maiztasuna</b>	Jarraia	<b>Urteak</b>	2011
<b>Aurreikusitako kostua</b>	1.000€ urtean		
<b>Oharrak</b>			
<b>Adierazleak</b>	12. Adierazlea: Herritarrek tokiko komunitatearekin duten gogobetetze-maila 19. Adierazlea: Biztanleria-Administrazio harremana		
<b>Exekuzio kontrola</b>	Hasteko Zain		
<b>Jarraipen / exekuzio erantzukizuna</b>	Otxandioko Udala		
<b>Finantzaketa</b>	Otxandioko Udala, Udalsarea 21		

## 0.5.3 Ekintza

## Haurrak parte-hartzean hezteko, ikastegiekin batera kanpainak egitea

<b>Lerroa</b>	<b>LE 0. IZAERA INTEGRALA EDUKIKO DUEN EREDU PARTEHARTZAILEA GARATZEA, PLAN ESTRATEGIKO HONEN BIRDEFINIZIOA ETA GAUZATZEA MODU ERAGINKORREZ KOORDINATUKO DITUENA</b>		
